



Lezoko Unibertsitateko Udala



2024PE090013

**LEZOKO UDALEKO ENPLEGU PROGRAMAREN BAITAN ARKITEKTO TEKNIKO/ INGENIERI BAT KONTRATATZEKO HAUTA PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK**

**BASES REGULADORAS DEL PROCESO SELECTIVO PARA LA CONTRATACIÓN DE UN/A ARQUITECTA/O TÉCNICA/O - INGENIERA/O EN EL MARCO DEL PROGRAMA DE EMPLEO DEL AYUNTAMIENTO DE LEZO**

**LEHENA. DEIALDIAREN XEDEA.**

**PRIMERA. OBJETO DE LA CONVOCATORIA.**

Deialdi honen xedea da Lezoko udaleko enplegu programaren baitan langile bat hautatzea lehiaketa oposaketa bidez, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak departamentuan lana egiteko.

El objeto de la presente convocatoria es la selección mediante concurso oposición de una persona para la realización de trabajos en el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, dentro del programa de empleo del Ayuntamiento de Lezo.

- Beharrezko titulazioa: Arkitekto teknikoa edo Ingeniaritza unibertsitate-titulazioa edo graduko unibertsitate-titulu baliokideak izatea.
- Hizkuntza eskakizuna: 3.
- Lanaldia: %100.
- Kontratuaren iraupena: sei hilabete
- Hileko soldata gordina: 3.722€

- Titulación requerida: Titulación universitaria de Arquitecta/o Técnica/o o Ingeniería o títulos universitarios equivalentes de grado.
- Perfil lingüístico: 3.
- Jornada: 100%.
- Duración del contrato: seis meses
- Salario bruto mensual: 3.722 €

Hautaketa-prozesu honek ez du lan-poltsarik sortuko, eta eskainitako lanpostua betetzeko baino ez da erabiliko

Este proceso selectivo no creará bolsas de trabajo y se utilizará exclusivamente para cubrir el puesto ofertado.

**BIGARRENA. LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK.**

**SEGUNDA. FUNCIONES PRINCIPALES DEL PUESTO.**

- Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak departamentuan laguntza-lanak egitea.
- Zerbitzu, mantentze-lan eta azpiegituren arloan esleitzen diren kontratuen segimendua egitea.
- Zerbitzuen arlorako aurrekontu-aurreproiektua prestatzen lagundu eta urteko gastuaren segimendua egin.
- Diru-laguntzak eskatzeko eta justifikatzeko eta haien segimendua egiteko dokumentazioa prestatu.
- Gorabeheren berri jaso eta haiek

- Labores de apoyo en el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios.
- Realizar el seguimiento de los contratos adjudicados en materia de servicios, mantenimiento e infraestructuras.
- Colaborar en la elaboración del anteproyecto de presupuesto en materia de servicios y realizar el seguimiento del gasto anual.
- Elaboración de la documentación para la solicitud, justificación y seguimiento de las subvenciones
- Recepción y gestión de incidencias. Asignar



## Lezoko Unibertsitateko Udala

kudeatu. Zerbitzuei lan programak esleitu, eta haien bilakaera eta emaitzak kontrolatu.

- Udal Zerbitzuen arduradunekin harremanetan egon eta bilerak egin, koordinatuta egoteko.

- Lanpostuaren kategoria profesionala kontuan hartuta agintzen zaion beste edozein eginkizun

programas de trabajo a los servicios y controlar su evolución y resultados

- Mantener contactos y reuniones de coordinación con los responsables de los Servicios Municipales.

- Cualquier otra función que se le encomiende en función de la categoría profesional del puesto

### **HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK. TERCERA.- CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN.**

Deialdian parte hartzeko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Beharrezko titulazioa: Arkitekto tekniko edo Ingeniaritza unibertsitate-titulazioa edo graduko unibertsitate-titulu baliokideak izatea.
- b) Euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna/EGA edo baliokidearen jabe izatea.
- c) Diziplina-espediente bidez edozein Herri Administrazio edo Autonomia Erkidegoko organo konstituzional edo estatutarioen zerbitzutik bereizita ez egotea, ebazpen judizialaren arabera enplegu edo kargu publikorako ezgaikuntza erabatekoa edo berezia ez izatea, ezta funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo lan-legepekoen kasuan, bereziak edo ezgaituak izan diren lanpostuko antzerako eginkizunak betetzeko.
- d) Beste estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina zehapenik edo baliokiderik ez izatea, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.
- e) Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege-kausaren batean sartuta ez egotea.

Para participar en la convocatoria es necesario cumplir los siguientes requisitos:

- a) Titulación requerida: Titulación universitaria de Arquitecta/o Técnica/o o Ingeniería o títulos universitarios equivalentes de grado.
- b) Estar en posesión del perfil lingüístico 3/EGA o equivalente en euskera.
- c) No haber sido separada/o, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de la Comunidad Autónoma, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para empleo o cargo público en virtud de resolución judicial, ni para el ingreso en el cuerpo o escala de funcionarios, ni, en el caso de personal laboral, para el desempeño de funciones análogas a las del puesto para el que hubieran sido separados o incapacitados.
- d) En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado o en situación equivalente, ni estar sometido a sanción disciplinaria o equivalente que impida el acceso al empleo público en igualdad de condiciones en el Estado de que se trate,
- e) No estar incurso en causa legal de incapacidad o incompatibilidad, de acuerdo con lo establecido en la Ley 53/1984, de Incompatibilidades del Personal al Servicio de las Administraciones Públicas.



## Lezoko Unibertsitateko Udala

### **LAUGARRENA. ESKAERAK AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA.**

Deialdi honetan parte hartzeko, interesdunek LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzu Publikora bidali beharko dituzte hautagaitzak, eta zerbitzu horrek egingo du hautagaien aurre-hautaketa eta hautatutakoak "curriculum vitae"ak bidaliko dizkio Udalari.

Lanbideko "curriculum vitae"n lehiaketako fasean baloratu behar diren merezimenduen inguruko datuak adierazi beharko dira. Ez dira kontuan izango curriculumean alegatu/jaso ez diren merezimenduak.

Alegatutako merezimenduak ondoren egiaztatu beharko dira epaimahai kalifikatzaileak ezarritako era eta epetan.

LANBIDEKO lan eskaintzan izena emateko epea 10 egun naturalekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta

### **BOSGARRENA. EPAIMAHAIA**

Epaimahaia partaide hauek osatuko dute:

Mahaiburua:

Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen arduraduna.

Bokalak:

- Udaleko arkitektoa.
- Udaleko arkitekto teknikoa.

Idazkaria:

- Udaleko administrari bat.

### **SEIGARRENA. IZANGAIEN ONARTZEA.**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, alkate-lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta udaletxeko web orrian argitaratuko da. Era berean ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzaileko kideak izendatuko dira. Hiru lanegun izango dira erreklamazioak egiteko.

### **CUARTA. FORMA Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.**

Para tomar parte en esta convocatoria, las personas interesadas deberán remitir las candidaturas al Servicio Público de Empleo LANBIDE, que realizará la preselección de las candidaturas y remitirá al Ayuntamiento los "currículos vitae" de las personas seleccionadas.

En el "currículum vitae" de Lanbide se harán constar los datos relativos a los méritos a valorar en la fase de concurso. No se tendrán en cuenta los méritos no alegados/recibidos en el currículum.

Los méritos alegados deberán ser posteriormente acreditados en la forma y plazos que establezca el Tribunal Calificador.

El plazo de inscripción en la oferta de empleo de LANBIDE será de 10 días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria

### **QUINTA. TRIBUNAL**

El jurado estará compuesto por los siguientes miembros:

Presidente:

Responsable de Urbanismo, Obras y Servicios del Ayuntamiento.

Vocales:

- Arquitecta del Ayuntamiento.
- Arquitecto Técnico Municipal.

Secretaria/o:

- Un/a administrativa/o del Ayuntamiento.

### **SEXTA. ADMISIÓN DE CANDIDATAS/OS.**

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se aprobará la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos por el Alcalde-Presidente y se publicará en la página web del Ayuntamiento. Asimismo, en dicha resolución se procederá al nombramiento de los miembros del Tribunal Calificador. Serán darán tres días laborables para realizar reclamaciones.



## Lezoko Unibertsitateko Udala

Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko emango den ebazpen batean, eta jendaurrean jarriko da aurrekoaren modu berean.

### **ZAZPIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA.**

Hautaketa prozesuak bi fase izango ditu.

#### 1.fasea: Merezimenduen balorazioa.

Lehiaketako merezimenduekin puntuaziogehien lortzen duten lehen 5 izangaiak bakarrik hautatuko dira bigarren fasera pasatzeko. Bost izangai hauetako inork ez baluke prozesua gaindituko edota lanpostua hartuko, zerrendako seigarren eta hamargarren postuetan daudenek jarraituko dute hautaketa prozesuan eta gainerakoekin prozedura bera jarraituko da.

Fase honetan merezimendu hauek baloratuko dira:

- Lan-esperientzia alor publikoan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein administrazio publikotan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko (30egun) puntu 0,5 emango da, gehienez ere 12 puntu.

- Lan-esperientzia alor pribatuan: Eskainitako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen edozein enpresa edo elkartetan izandako esperientzia profesionala baloratuko da. Hilabete bakoitzeko 0,5 bat emango da, gehienez ere 6 puntu.

- Prestakuntza espezifikoa: lanpostuaren eginkizunekin lotura zuzena duten gaiei buruzko prestakuntza espezifikoa baloratuko da, betiere ikastaroa administrazio barruan egina bada (EUDEL, HAEE, etab.) edo Unibertsitate mailako erakunde batean. Puntu bat emango da 60 prestakuntza- orduko. Soilik onartuko dira azkeneko 5 urtetan egindako

Si no hubiera reclamaciones, la lista provisional se considerará automáticamente definitiva. Si hubiera reclamaciones, serán aceptadas o rechazadas en una resolución aprobatoria de la lista definitiva, que se someterá a información pública en los mismos términos que la anterior.

### **SEPTIMO. PROCESO DE SELECCIÓN.**

El proceso de selección constará de dos fases.

#### Fase 1: Valoración de méritos.

Sólo las/os 5 primeras/os aspirantes que obtengan mayor puntuación con los méritos del concurso serán seleccionadas/os para pasar a la segunda fase. En el caso de que ninguna/o de estas/os cinco aspirantes superara el proceso o optara a la plaza, quienes ocupen los puestos sexto y décimo de la lista continuarán en el proceso selectivo y con el resto se seguirá el mismo procedimiento.

En esta fase se valorarán los siguientes méritos:

- Experiencia laboral en el sector público: Se valorará la experiencia profesional en el desempeño de funciones análogas a las del puesto ofertado en cualquier Administración Pública. Se valorará con 0,5 puntos por mes (30 días), hasta un máximo de 12 puntos.

- Experiencia laboral en el ámbito privado: Se valorará la experiencia profesional en cualquier empresa o asociación en el desempeño de funciones análogas a las del puesto ofertado. Se otorgará un 0,5 por mes, con un máximo de 6 puntos.

- Formación específica: se valorará la formación específica en materias directamente relacionadas con las funciones del puesto de trabajo, siempre que el curso se haya realizado dentro de la administración (EUDEL, IVAP, etc.) o en una institución de nivel universitario. Se otorgará 1 punto por cada 60 horas de formación. Sólo se admitirán cursos realizados en los últimos 5 años. Hasta un



## Lezoko Unibertsitateko Udala

ikastaroak. Gehienez ere 6 puntu.

máximo de 6 puntos.

Merezimendu hauek ebaluatu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak behin-behineko zerrenda osatuko du, udal web orrian iragarri, eta 3 lan eguneko epea emango zaie erreklamazioak aurkezteko, iragarkiaren biharamunetik kontatzen hasita.

Una vez evaluados estos méritos, el Tribunal Calificador confeccionará la lista provisional, mediante su publicación en la página web municipal, concediéndoles un plazo de 3 días hábiles para la presentación de reclamaciones, a contar desde el día siguiente al del anuncio.

Balizko erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzen behin betiko zerrenda onartuko da, puntuazio gehien lortu duten lehen bost (5) izangaiak bigarren fasera deituz, hau ere udal web orriko iragarkiaren bitartez.

Una vez resueltas las posibles reclamaciones, se aprobará la relación definitiva de resultados, convocando a la segunda fase a las/os cinco (5) primeras/os aspirantes con mayor puntuación, también a través del anuncio en la página web municipal.

### 2. fasea: Oposizioa.

### Fase 2: Oposición.

Elkarrizketa: Oinarri hauetan deskribatutako lanpostuaren eginkizunekin zer ikusia duen elkarrizketa egingo du epaimahaiak.

Entrevista: El Tribunal realizará una entrevista relacionada con las funciones del puesto descrito en estas bases.

50 punturekin baloratuko da eta gutxienez 25 lortu beharko dira proba gainditzeko.

Se valorará con 50 puntos y será necesario obtener un mínimo de 25 para superar la prueba.

### **ZORTZIGARRENA. JAKINARAZPENAK**

### **OCTAVA. NOTIFICACIONES**

Epaimahai kalifikatzailearen komunikazio eta jakinarazpen guztiak Lezoko Udalaren web orriaren bitartez egingo dira.

Todas las comunicaciones y notificaciones del Tribunal Calificador se realizarán a través de la página web del Ayuntamiento de Lezo

### **BEDERATZIGARRENA. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.**

### **NOVENA. PROPUESTA DEL TRIBUNAL.**

Behin hautaketa-prozesuaren kalifikazioa amaitutakoan, Epaimahaiak punturik gehien erdietsi duen izangaia izendatzeko proposamena egingo du eta, aldi berean, berorren izena Udaleko web orrian argitara emango du.

Una vez finalizada la calificación del proceso selectivo, el Tribunal realizará la propuesta de nombramiento del candidato o candidata que haya obtenido mayor puntuación y publicará su nombre en la página web del Ayuntamiento.

Oposizioa izangaietako inork ez balu gainditu, Epaimahaiak deialdia hutsik uztea proposatuko du.

Si la oposición no hubiera sido superada por ninguna/o de las/os aspirantes, el Tribunal propondrá la declaración de la convocatoria desierta.

### **HAMARGARRENA. IZENDAPENA ETA PROBALDIA**

### **DÉCIMA. NOMBRAMIENTO Y PERIODO DE PRUEBA**

Eskumena duen organoak, Epaimahaiak proposaturiko izangaiari behin behineko langile laboral gisa jarduteko ahalmena emango dio.

El órgano competente, facultará al aspirante propuesto por el Tribunal para ejercer como personal laboral eventual. La persona seleccionada



## Lezoko Unibertsitateko Udala

Hautatutako pertsonak 2 hilabeteko probaldia gainditu beharko du.

Probaldi hau ebaluatzeko garaian aintzat hartuko da izangaiak lanpostuko eginkizunak egoki egiten dituen. Zerbitzu buruak egingo du proba-epealdiari buruzko txostena, eta bertan gai edo ez gai den adieraziko du.

Txostenean ez gai adieraziko balitz, izendapena amaitutzat joko da, horretarako organo eskumendunak arrazoituriko akordioa hartuko lukeelarik.

Azken kasu honetan, zein proposaturiko izangaiak lanpostuari uko egingo balio, organo ahalmenuak behin behineko langile laborala izendatuko du, hautaketa gaindituta, puntuazio hurrenkeran hurrengo lekuan legokeen izangaia.

### **HAMAIKAGARRENA. GERTAKARIAK, INPUGNAZIOAK ETA LEGEDI OSAGARRIA.**

Epaimahaiak ahalmena du gerta daitezkeen zalantzak argitzeko eta hautaketa-prozesuaren garapen egokirako beharrezko erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez diren gaitan.

Interesdunek deialdi eta oinarri hauen aurka egin ahal izango dute, bai eta deialdiaren ondorioz eta epaimahaiaren lanaren ondorioz egiten diren administrazio-egintza guztien aurka ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epeetan eta moduan.

Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, honako hauek aplikatuko dira:

Estatuko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileak sartzeko erregelamendua, 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena ; 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegat

deberá superar un período de prueba de 2 meses.

En la evaluación de este periodo de prueba se tendrá en cuenta la adecuada realización de las funciones del puesto de trabajo. El Jefe de Servicio elaborará un informe sobre el periodo de prueba en el que se indicará si es apta/ o no apta/o.

En el caso de que el informe la/lo declarase no apta/o, el nombramiento se entenderá concluido mediante acuerdo motivado del órgano competente.

Tanto en este último caso, como en el supuesto de que la/el aspirante propuesta/o renunciara al puesto, el órgano competente designará como personal laboral eventual a quien habiendo superado la selección, le correspondería en el siguiente lugar por orden de puntuación.

### **DECIMOPRIMERA. HECHOS, IMPUGNACIONES Y LEGISLACIÓN COMPLEMENTARIA.**

El Tribunal queda facultado para resolver cuantas dudas puedan surgir y adoptar los acuerdos necesarios para el adecuado desarrollo del proceso selectivo, en lo no previsto en las presentes Bases.

Las personas interesadas podrán impugnar las presentes convocatorias y bases, así como cuantos actos administrativos se dicten como consecuencia de la convocatoria y del trabajo del Tribunal, en los plazos y forma establecidos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En lo no previsto en las bases, serán de aplicación:

Reglamento de Ingreso del Personal al servicio de la Administración del Estado, aprobado por Real Decreto 364/1995; Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco; Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y demás disposiciones de aplicación



Lezoko Unibertsitateko Udala

Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen  
Testu Bategina onartzen duena eta  
aplikatzekoak diren gainerako xedapenak

Sinatzailea Zinegotzi delegatua, Eneritz Arruti Osanbela

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:  
Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de  
Internet:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/53/AAAASS8S9.dgE0>